XEDAPEN OROKORRAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3035

AGINDUA, 2026ko ekainaren 25ekoa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez hirugarrenez aldatzen baita 2020ko irailaren 9ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituena, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituena.

2020ko irailaren 9ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituena, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituena eguneratzeko beharra antzeman da.

Lehenik, 2024ko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 22 eta 23. artikuluetan adierazitakoa gure egiaztatzegintzara egokitzeko aldaketa proposamenak. Dekretu honen bitartez, hizkuntza-eskakizunen sistema aldatu egin de euskal sektore publikoko entitateek lanpostuaren funtzio komunikatiboen azterketan oinarrituta, hizkuntza-eskakizun simetrikoak, asimetrikoak edo partzialak ezartzeko aukera arautu da. Asimetrikoen kasuetan lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, idatzizko zein ahozko adierazpen- eta ulermen-trebetasunetan gaitasun-maila diferenteak behar direnean, hizkuntza-eskakizuna asimetrikoki adieraziko da. Partzialen kasuan, berriz, desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan, baldin eta desgaitasunaren balorazioan eta diagnostikoan ezin bazaie ebaluatu gaitasun-maila jakin bat, dela idazmenean eta irakurmenean, dela mintzamenean eta entzumenean, ez dituzte egiaztatu beharko ebaluatu ezin zaizkien adierazpen- eta ulermen-trebetasun horiek. Horiek horrela, HABEk urtero antolatzen dituen ohiko egiaztatze-deialdietan maila simetrikoez gain, maila asimetriko zein partzialak ere egiaztatzeko aukera eskaini nahi du, eta horretarako beharrezkoa da 2020ko irailaren 9ko Agindua aldatzea.

Bigarrenik, behar bereziak dituzten eta egokitzapenak behar dituzten azterketarien ebaluazioa hobetzeko aldaketa proposamenak. Orain arte, probaren iraupena ebaluazio- zein egiaztatze-proben inguruko zehaztapenetan ezarritakoa baino % 60 gehiago luzatzeko aukera zegoen. Orain % hori kendu egin da, behar bereziak dituzten azterketariek azterketaren iraupena luzatzeko aukera emanez.

Hirugarrenik, euskaltegiei, A1 eta A2 mailez gain, beste mailaren bat edo batzuk emateko aukera irekitzea maila ofizialean. Atea irekita utzi nahi da euskaltegietan, A1 eta A2 mailez gain, beste mailaren bat egiaztatzeko edo trebetasunen batean balio egiaztatzailea emateko aukera irekita uztea (gaur egun ahozko eta idatzizko ulermena euskaltegien bidez egiaztatzen da maila guztietan, ez horrela mintzamena eta idazmenean), beti ere, horretarako baldintza akademikoak ematen direnean. Eskabide hau euskaltegi pribatuek egin diote HABEri.

Azkenik, bateratze-saioak modu eraginkorrago batean egiteko moduak eskaintzen dira, eta ikerle, tutore eta epaimahaikideen funtzioak hobeto zehazten dira, modu eraginkorragoan lan egiteko eta bikoizteak saihesteko. Esate baterako, tutore eta aztertzaileen arteko bateratze-saioak modu eraginkorrago batean egiteko moduak eskaintzen dira (soilik presentzialki egin beharrean, on-line edo prestakuntza plataformaren bitartez egin ahal izatea) eta ikerle, tutore eta epaimahaikideen ardurak eta egitekoak hobeto banatu eta zehazten dira, azterketen zuzenketak eta berrikuspe-

nak errepikatu ez daitezen. Hau guztia dator, urtetik urtera azterketari gehiago aurkezten direlako egiaztatze-deialdietara eta horri aurre egiteko prozesuen eraginkortasuna indartu nahi da.

Honegatik guztiagatik,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 4. artikuluaren («Egiaztatu eta ebaluatu daitezkeen mailak, azpimailak eta trebetasunak») 8. atala aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 4. artikuluaren («Egiaztatu eta ebaluatu daitezkeen mailak, azpimailak eta trebetasunak») 8. atala aldatzen da. Honako idazkera izango du:

> «8.– Euskara mailak trebetasunez trebetasun egiaztatu ahal izango ditu HABEk, HEOCean trebetasun horiek balioesteko ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera: banaka, trebetasuna ekoizlea denean, eta era bateratuan, binaka, betiere trebetasun horietako batek izaera ekoizlea duenean».

2. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 11. artikuluaren («Mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa») 5. atala aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 11. artikuluaren («Mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa») 5. atala aldatzen da. Honako idazkera izango du:

> «5.– Euskaltegian HEOCaren B1, B2, C1 eta C2 mailetan mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa gainditu izana ezinbesteko baldintza izango da HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegietako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleentzako deialdietan matrikulatu ahal izateko, agindu honen III. kapituluan ezarritako irizpide eta jarraibideak betez eta Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuak, 22. artikuluko 7. eta 8. zatietan, hizkuntza-eskakizun asimetrikoei eta partzialei buruz dioenari jarraituz».

3. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 11. artikuluaren («Mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa») 6. atala aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 11. artikuluaren («Mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa») 6. atala aldatzen da. Honako idazkera izango du:

> «6.– Ikasle bat matrikulatuta dagoen ikastaroko helburu-mailara iritsi ez, eta euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazioan HEOCean zedarritutako helburu-maila horren

aurreko mailagainditzen badu, HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegietako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleentzako hurrengo deialdian gainditutako mailahorretan matrikulatu ahal izango da, agindu honen III. kapituluan ezarritako irizpide eta jarraibideak betez».

4. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 12. artikuluaren («Egiaztatzegintzaren printzipio orokorrak») 3. atala aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 12. artikuluaren («Egiaztatzegintzaren printzipio orokorrak») 3. atala aldatzen da. Honako idazkera izango du:

«3.– Urteroko azterketaldirako deialdiak aurreikusiko du, kasua balitz, komunikagaitasun-maila bat egiaztatzeko azterketan matrikulatzeko aurretik egiaztatu behar den gutxieneko komunikagaitasun maila».

5. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 13. artikulua («Egiaztatze-modalitateak») aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 13. artikulua («Egiaztatze-modalitateak») aldatzen da. Honako idazkera izango du:

«13. artikulua.– Egiaztatze-modalitateak.

Egiaztatze-modalitateak Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuaren 22. artikuluaren 8. paragrafoan aurreikusitakoak izango dira».

6. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 15. artikuluaren («Deialdi-mota bakoitzaren ezaugarriak») 1. atalaren b letra aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 15. artikuluaren («Deialdi-mota bakoitzaren ezaugarriak») 1. atalaren b letra aldatzen da. Honako idazkera izango du:

«b) HABEk, deialdi hauen helburuen artean, ezarriko du elkarren artean bat etorri behar dutela, euskaltegiek beren kabuz burutzen dituzten ebaluazio-eginkizunek batetik; eta, egiaztatzegintzak –kanpo-ebaluazio den heinean– berekin dituen zereginak, bestetik. Ikuspegi horretatik, beraz, ikasleen entzunezko nahiz idatzizko ulermen-trebetasunak euskaltegian bertan egiaztatuko dira, ikasleak egiaztatze-deialdian matrikulatu aurretik. Era berean, komunikagaitasun-maila ezberdinetako beste trebetasunak euskaltegian egiaztatu ahal izango dira eta HABEren zuzendari nagusiak egiaztatze-deialdi bakoitzeko Ebazpenean ezarriko ditu zehatz-mehatz deialdi horretan euskaltegian egiaztatu ahal izango diren mailak agindu honen 11. artikuluan mailaren atalasea ebaluatzeko ezarritako pro-

zedurei jarraituz, ikasle batek mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-saio batean parte hartu ahal izateko, euskaltegi horretan HABEren zuzendari nagusiak egin deialdi-ebazpenean ikastaroaren trinkotasunaz, ikaslearen parte-hartzearen zenbatekoaz eta ikastarorako programatutako gutxieneko aurrerapenaz ebazpenean zehaztutako eta derrigorrez bete beharreko baldintzak bete beharko ditu».

7. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 16. artikuluaren («Egiaztatze-proben definizioa eta ezaugarriak») 2. atala aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 16. artikuluaren («Egiaztatze-proben definizioa eta ezaugarriak») 2. atala aldatzen da. Honako idazkera izango du:

«2.– Hizkuntzen Europako Portfolioa erabiltzeko Europako Kontseiluaren gomendioak betetzeari begira, egiaztagiri ofiziala erdiesteko probak mailaren atalasea menperatzen dela frogatzeko modukoak dira, eta hautagaiak euskararen erabileran duen gaitasun-maila ebaluatuko duten trebetasunen arabera diseinatuko dira; ondorioz, maila bakoitzari dagokion gaitasun orokorraren araberako HEOCaren mailetako egiaztagiriak emango dira, eta baita atalka ebaluatutako trebetasunen araberako zatikako egiaztagiriak ere».

8. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 16. artikuluaren («Egiaztatze-proben definizioa eta ezaugarriak») 5. atala aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 16. artikuluaren («Egiaztatze-proben definizioa eta ezaugarriak») 5. atala aldatzen da. Honako idazkera izango du:

«5.– A1, A2 eta etorkizunean HABEk erabaki ditzakeen mailen egiaztagiriak erdiesteko, ezinbestekoa izango da euskaltegiko irakasleek ebaluatutako mailaren atalasearen gaineko proba gainditzea».

9. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 16. artikuluaren («Egiaztatze-proben definizioa eta ezaugarriak») 6. atala aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 16. Artikuluaren («Egiaztatze-proben definizioa eta ezaugarriak») 6. atala aldatzen da. Honako idazkera izango du:

«6.– Gainontzeko mailen egiaztagiriak erdiesteko, gainera, beharrezkoa izango da komunikazio-gaitasun orokorraren inguruko HABEren egiaztatze-proba gainditzea, HABEren zuzendari nagusiak urtero egingo dituen deialdien arabera».

10. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren,

eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 23. artikuluaren («Idazmen-trebetasuna egiaztatzea») 8. atala aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 23. artikuluaren («Idazmen-trebetasuna egiaztatzea») 8. atala aldatzen da. Honako idazkera izango du:

> «Ebaluatzaile ikerleak eginiko ebaluazioak probaren emaitza aldatzen badu, irizpen hori mailaren epaimahaiari helaraziko zaio. HABEren zuzendari nagusiak ezarriko ditu irizpen horien oinarri diren probak berriro ebaluagai edo berrikusgai izateko irizpideak. Epaimahaiak balioetsi eta onartuz gero, dagokion aktako kalifikazioa eguneratuko du, era honetara amaiera emanez probaren kalifikazio-prozesuari».

11. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 25. artikuluaren («Egiaztatzegintzaren kalitatea») 2. Atalaren 1. paragrafoa aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 25. artikuluaren («Egiaztatzegintzaren kalitatea») 2. Atalaren 1. paragrafoa aldatzen da. Honako idazkera izango du:

> «HABEren Zuzendaritza Nagusiaren ardura izango da egiaztatze-probak kudeatzeko, ebaluatzeko eta kalifikatzeko antolatuko diren bateratze-saioen beharrei bide emateko baliabideak zuzkitzea, egiaztatzegintzako epaimahaikideen, tutoreen, ikerleen, aztertzaileen, irakasleen eta teknikari adituen iritzia jasota».

12. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 29. artikuluaren («Ebaluazio- eta egiaztatzegintza-probak egokitzeko neurriak») 2. atala aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 29. Artikuluaren («Ebaluazio- eta egiaztatzegintza-probak egokitzeko neurriak») 2. atala aldatzen da. Honako idazkera izango du:

> «2.– HABEk, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek probaren zatietako bakoitzaren iraupena ebaluazio- zein egiaztatze-proben inguruko zehaztapenetan ezarritakoa luzatu ahal izango dute».

13. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 34. artikulua («Aurkezpena: epeak, moduak eta jarraibideak») aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle

helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 34. artikulua («Aurkezpena: epeak, moduak eta jarraibideak») aldatzen da. Honako idazkera izango du:

«34.– Artikulua. Aurkezpena: epeak, moduak eta jarraibideak.

1.– Azterketariek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte edo/eta erdietsitako kalifikazioa berrikusteko eskatu, deialdi bakoitzean ezarritako epeen barruan eta deialdiaren ebazpenean ezarritako jarraibideei eta HABEren zuzendari nagusiak aurrez ebaluagai edo berrikusgai izateko ezarritako irizpideei lotuz. Eskaera arrazoitu egin beharko da.

2.– Desadostasun hutsa adieraztea ez da oinarri nahikoa izango erdietsitako kalifikazioaren berrikuspena eskatzeko. Eskaerak ez baditu betetzen HABEren zuzendari nagusiak aurrez ebaluagai edo berrikusgai izateko ezarritako irizpideak, edo oinarri teknikorik gabeko kalifikazio-berrikuspenen eskabidea balitz, eskaera horiek gaitzirizpena izango dute».

14. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 37. artikuluaren («HABEren egiaztatzegintza-deialdietako mailaz mailako epaimahaiak») 3. atala aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 37. artikuluaren («HABEren egiaztatzegintza-deialdietako mailaz mailako epaimahaiak») 3. atala aldatzen da. Honako idazkera izango du:

«3.– Hauek izango dira epaimahaikideen egitekoak:

– Ebaluazio- eta Egiaztatze Arloak landu duen gaitasun-proba egoki aplikatuko dela bermatzea.

– Aztertzaile eta tutoreen irizpenak jaso ondoren, HABEren zuzendari nagusiak aurrez ezarritako irizpideen arabera berriro ebaluagai edo berrikusgai diren gaitasun-probak kalifikatzea.

– Jarritako zuzenketa-irizpideak aztertzaileek egoki aplikatuko dituztela bermatzea.

– Zailtasun jakinak edo kontraesanak izan ditzaketen gaitasun-probak ofizioz zuzentzea.

– Zuzenketa eta kalifikazioari buruzko akta idatzi eta HABEren Azterketa-batzordeari berri ematea.

– Egiaztatze-proben kalifikazioa berrikusteko eskaerei erantzuteko tutoreek idatzitako proposamenak onartzea, eta interesdunei igortzea.

– Deialdiko egiaztatze-proben kalifikazioen ondoren maila bakoitzeko lagin bat berrikustea.

– Deialdiotako ezaugarri, irizpide eta gutxienekoak bete eta betearaztea, aldian aldiko ekintzen aktak idatziz.

– Ebaluazio- eta Egiaztatze Arloko arduradunaren gidaritzapean, bateratze-saioetako antolaketan eta ebaluazioan parte hartzea.»

15. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren,

eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 38. artikuluaren («HABEren egiaztatzegintza-deialdietako aztertzaile-taldeetako tutoreak.») 2. atalaren 3. marratxoa aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 38. artikuluaren («HABEren egiaztatzegintza-deialdietako aztertzaile-taldeetako tutoreak.») 2. atalaren 3. marratxoa aldatzen da. Honako idazkera izango du:

> «Egiaztatze-proben kalifikazioa berrikusteko HABEren zuzendari nagusiak aurrez berriro ebaluagai edo berrikusgai izateko ezarritako irizpideak betetzen dituzten eskaerei emandako erantzun teknikoak prestatzea, probak berrikusiz eta, hala badagokio, birkalifikatu ondoren, dagokion mailako epaimahaiburuari jakinaraziz eta Epaimahaiak onartu ondoren, interesdunari izenpetuta bidaltzea».

16. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 39. artikuluaren («HABEren egiaztatzegintza-deialdietako aztertzaileak») 2. atala aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 39. artikuluaren («HABEren egiaztatzegintza-deialdietako aztertzaileak») 2. atalaren hurrenkeran lehen marratxo bat gehitzen da. Hurrengo idazkera izango du:

> «Idatzizko zein ahozko probetan parte hartzeko prestutasuna adieraztea, eta bietan parte hartzeko aukerarik ez balego, ondo justifikatzea».

17. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 40. artikuluaren («Ebaluatzaile ikerleak») 2. atalaren 2. marratxoa aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 40. artikuluaren («Ebaluatzaile ikerleak») 2. atalaren 2. marratxoa aldatzen da. Honako idazkera izango du:

> «Azterketariak, arrazoituz, proben berrikuspena eskatu badu eta berrikuspen hori HABEren zuzendari nagusiak aurrez berriro ebaluagai edo berrikusgai izateko ezarritako irizpideekin bat badatoz, probon behin betiko ebaluazio- eta kalifikazio-proposamena mailako epaimahaiari egitea, eta Epaimahaiak onartu ondoren, interesdunari izenpetuta bidaltzea».

18. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 43. artikuluko («Azterketarien eskubide eta betebeharrak») 1. atalaren 2. paragrafoaren 1. tartekia aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 43. artikuluko («Azter-

ketarien eskubide eta betebeharrak») 1. atalaren 2. paragrafoaren 1. tartekia aldatzen da. Honako idazkera izango du:

> «Betebeharrei dagokienez, berriz, euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazioan oinarritutako euskara mailetako euskaltegien egiaztapena eskuratu nahi duen ikasleak gutxieneko hauek bete beharko ditu:».

19. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 44. artikulua («Gorabeheretarako protokoloa») aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 44. artikuluari («Gorabeheretarako protokoloa») ondorengo azken tartekia gehitzen zaio. Honako idazkera izango du:

> «Azterketari guztiekin, behar bereziak dituztenekin bereziki, eskaerei eta prozedurari buruzko akordioak beti modu idatzian jaso eta bidali behar dira, ziurtatzeko eskatu dena behar bezala jasota dagoela».

20. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 45. artikuluaren («Komunikazio-gaitasunaren egiaztagirien ereduak») 2. atala aldatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 45. artikuluaren («Komunikazio-gaitasunaren egiaztagirien ereduak«) 2. atala aldatzen da. Honako idazkera izango du:

> «2.– Horretarako, euskara mailen egiaztagiri-ereduak diseinatuko dira, komunikagaitasun-maila bakoitzeko bat, eta agindu honetan eta Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuan ezarritakoaren arabera idatziko dira».

21. artikulua.– 2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 45. artikuluaren («Komunikazio-gaitasunaren egiaztagirien ereduak») 3. atala ezabatzea.

2020ko irailaren 9ko Aginduaren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarenaren, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituenaren, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenaren 45. artikuluaren («Komunikazio-gaitasunaren egiaztagirien ereduak») 3. atala ezabatzen da.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

HABEko zuzendari nagusiari ahalmena ematen zaio, bere eskumenen barruan, agindu honetan ezarritakoa bete dezan.

Donostia, 2026ko ekainaren 25a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA.